

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2026ko uztaila

## Aurkibidea

1. Zuzendaritzaren aurreikuspenak

2. Afiliazioa eta kontratazioa

3. Langabezia erregistratua

4. Inflazioa

5. Enpresarien konfiantza

6. ELGAko aurreikuspenak

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %1,7 haziko da 2027an

Enpleguak gora egiten jarraituko du, erritmo apalagoan bada ere.

### 2. Afiliazioaren errekor historiko berria ekainean

Baita kontratazioaren hazkunde sendoa ere.

### 3. Erregistratutako langabezia zertxobait igo da ekainean

Hiruhilekoko batez bestea berriro murriztu da.

### 4. Inflazioa %3,2an mantendu da maiatzean

Azpiko inflazioa hamarren bat igo zen apirilarekin alderatuta, zerbitzuek bultzatuta.

### 5. Euskal enpresek dinamismo txikiagoa aurreikusten dute, baina baikor jarraitzen dute

Langileei buruzko itzaropenak izan ziren hobetu zen adierazle bakarra.

### 6. ELGAK dezelerazio globala aurreikusten du tentsio energetikoek dirauten bitartean

Munduko hazkundeak intentsitatea galduko du 2026an eta %2,8an kokatuko da,



# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


## EAEko ekonomia %1,7 haziko da 2027an

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

### 2027KO HAZKUNDEA

# %1,7




Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenen arabera, BPGren hazkundera %1,9koa izango da 2026an eta %1,7koa 2027an, nazioarteko ziurgabetasunak eta, bereziki, Ekialde Hurbileko gatazka Iranen inguruan izan duen bilakaerak oraindik ere baldintzatzen duten ingurune batean. Izan ere, Iranen behin betiko ebazpena zailtzazkoa da, nahiz eta azken aurrerapenak egin diren.

Jardueraren hazkundera, batez ere, barneeskarian oinarrituko da 2026an, baina beheranz-

ko intentsitatearekin aurreikuspenaren horizontean zehar. Kontsumo pribatuak erritmo altuari eutsiko dio, erosahaltenaren berreskurapen partzialak lagunduta, nahiz eta inflazio presioek eta moneta baldintza ez hain hedakorrek haren aurrerapena mugatzera joko duten. Inbertsioak, bestalde, hazten jarraituko du, baina dezelerazio argia izango du finantza gogortzearekin eta Europako funtsei lotutako proiektuen bultzada txikiagoarekin lotuta.


### GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aldiz, kanpo eskariak hazkundera murrizten jarraituko du bi urteetan. Esportazioen ahuleziak, lehiakortasun arazoek eta nazioarteko ziurgabetasunak azaltzen dute ekarpen negatibo hori, eta 2027an Europako ingurunea hobetzearekin soilik zuzenduko da partzialki. Testuinguru horretan, industriak hazkunde txikia izango du 2026an, hurrengo urterako aurreikusitako susperraldi sendoagoarekin. Enpleguak gora egiten jarraituko du, erritmo apalagoan bada ere: 2026an %1,1eko hazkundera aurreikusten da, 11.000 lanpostu berri ingururen baliokidea, 2027an %0,9 motelduko dena. Langabezia-tasa maila baxuetan mantenduko da 2026an, eta 2027an % 6,2ra jaitsiko da.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.





# GS-KO AFILIAZIOA ETA KONTRATAZIOA

## Afiliazioaren errekor historiko berria ekainean...


Gizarte Segurantzako afiliazioa 1.044.686 pertsonakoa izan zen ekainean Euskadin. Hau da, %1,5eko urte arteko hazkundera izan du, eta 2006tik eskuragarri dagoen serie historikoaren maximo berri bat ezarri du, 1.040.000 afiliatuen gaineratik finkatuta. Afiliatuen zenbateko osoa 15.541 pertsonatan igo da aurreko urteko ekainarekin alderatuta. Sexuaren arabera, bilakaerak orekatua izaten jarraitzen du: 502.106 emakume eta 542.578 gizon afiliatu bait daude, hau

da, urte arteko %1,5eko hazkundera egon da bi kasuetan. Gainera, afiliazioak gora egin zuen ekainean maiatzarekin alderatuta, jarduera adar guztietan, lehen sektorean izan ezik. Industria nabarmendu behar da, 1.266 afiliatu gehiago lortu baititu. Afiliazioaren bilakaera urtearen lehen erdian positiboa izan da, eta azken hilabeteetan hazkundera areagotu egin da.

### GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

EKAINEKO AFILIAZIOA  
**%1,5**




### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



# ...eta kontratazioaren hazkunde sendoa

Ekainean 81.387 kontratu erregistratu ziren Euskadin, 2025eko hilabete berean baino %8,5 gehiago. Maiatzarekin alderatuta, kontratazioa %23,7 igo zen, urteko aldi horretako ohiko urtarokotasunarekin bat etorritik. Kontratu mugagabeak maila altuetan mantendu ziren: 19.774 kontratu, guztizkoaren %24,3. Gainera, mugagabeen urte arteko hazkundeak (%24,5) nabarmen gaintitu zuen aldi baterako kontratatuena (%4,1), eta horrela enplegu-

egonkorraren bilakaera bereziki positiboa izan zen. Bestalde, kontratatutako pertsonak 60.342 izan ziren, %9,7 haziz aurreko urtearen aldean. 25 urtetik beherakoek kontratuen %36 kontzentratu zuten, eta agerian utzi zuten kolektibo horrek garrantzi handia duela langile berriak lan merkatuan sartzeko orduan. Sexuen arabera, kontratazioa ia modu orekatuan banatu zen: kontratuen %49 emakumeek sinatu zituzten eta %51 gizonek.


## ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

### GUZTIRA

Milakoak

### KONTRATUAK EKAINA


**%8,5**



## ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

### EMAKUMEAK


Milakoak



## ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

### GIZONAK

Milakoak



Iturria: Gizarte Segurantzaren.



# LANGABEZIA ERREGISTRATUA

## Erregistratutako langabezia zertxobait igo da ekainean


Euskadik 104.212 langabe izan zituen ekainean, hau da, urte arteko %0,8ko hazkundera. Horrela, aurreko hilabeteetan ikusitako jaitsiera joera eten du. Guztira, langabeziak gora egin zuen 821 pertsonatan 2025eko ekainarekin alderatu-

ta. Igoera horrek ez du aldatzen Euskadiko lan merkatuaren sakoneko joera, langabezia maila txikiei eusten baitie, eta, bigarren hiru hileko osoan, erregistratutako langabeziaren urte arteko %1,0ko jaitsiera metatzen baitu.

### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.  
EKAINA  
**%0,8**




### LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




### LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Langabeziaren urte arteko hazkundera nabarmenagoa izan zen emakumeen artean (%1,1) eta 25 urtetik beherakoen artean (%1,8). Sektorera, langabeziak behera egin zuen lehen sektorean (-%3,5) eta eraikuntzan (-%2,7); zerbitzuetan (%0,4) eta industrian (%0,3), berriz, igo-

## LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



era txikiak izan ziren. Era berean, aurreko enplegurik gabeko kolektiboaren hazkundera nabarmendu zen (%5,2), urtebete lehenago baino 738 pertsona gehiagorekin; atzerritarren artean, berriz, langabezia %6,4 igo zen, aztertutako talde nagusien artean hazkunderik handiena.

### LANGABEAK

	2025eko ekaina	2026ko ekaina	Aldakuntza
<b>LANGABEAK GUZTIRA</b>	<b>103.391</b>	<b>104.212</b>	<b>821</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>			
Araba	17.908	17.404	-504
Bizkaia	58.270	58.954	684
Gipuzkoa	27.213	27.854	641
<b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>			
Gizonak	43.295	43.431	136
Emakumeak	60.096	60.781	685
25 urtetik beherakoak	8.763	8.921	158
25 urte baino gehiago dutenak	94.628	95.291	663
<b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>			
Lehen arloa	1.826	1.763	-63
Industria	9.917	9.944	27
Eraikuntza	5.377	5.230	-147
Zerbitzuak	72.006	72.272	266
Lehenago lan egin dutenak	89.126	89.209	83
Lehenago lan egin ez dutenak	14.265	15.003	738
<b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK</b>			
Langabe atzerritarrak	19.901	21.173	1272

Iturria: SEPE.




Ekonomia, Lan eta  
Enplegu Saila

# INFLAZIOA

## Inflazioa %3,2an mantendu da maiatzean

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %3,2an mantendu zen maiatzean, elektrizitatearen eta gasaren neurritasunean oinarrituta; garraioak eta zerbitzuek, berriz, goranzko presioa egiten jarraitu zuten. Azpiko inflazioa hamarren bat igo zen apirilarekin alderatuta, zerbitzuek bultzatuta. Aitzitik, hondarreko inflazioa moteldu egin zen energiak eutsi egin zueako eta prestatu gabeko elikagaien presio txikiagoagatik.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,2	3,2
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,9	2,5
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	3,0	0,4
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	4,0	2,1
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	4,4	0,7
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	4,1	0,3
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	4,5	0,4


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Taldeka, garraioak izan zuen inflaziorik handiena (%6,8), erregaien garestitze jarraitua islatuz. Ondoren jatetxeak eta hotelak (%5,1) eta aseguruak eta finantza-zerbitzuak (%4,7) izan ziren gehien garestitu zirenak. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak ere hazkunde nabarmena izan zuten (%3,4), igoera apirilean baino apalagoa izan bazen ere. Aitzitik, moderazioa jantzi-

## ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



en eta oinetakoen merkatzean oinarritu zen (-%3,7), urtarokotasunari lotuta, eta etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaien hazkunde txikian (%0,6), gasa eta argindarra mantendu egin bait ziren. Komunikazioek (-%0,3) negatiboan jarraitu zuten, eta altzariak eta etxeko tresneriek ere oso hazkunde apala izan zuten (%0,9).

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,4	2,2	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,1	3,5	2,9
Jantziak eta oinetakoak	-3,7	-1,1	1,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	0,6	1,4	3,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,9	1,2	0,3
Osasuna	1,7	2,1	2,6
Garraioa	6,8	7,4	7,3
Komunikazioak	-0,3	0,2	0,9
Aisia eta kultura	2,4	2,6	2,0
Hezkuntza	2,1	2,6	3,8
Jatetxeak eta hotelak	5,1	4,8	4,0
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,7	4,6	3,9
Zaintza pertsonala, babes soziala eta hainbat ondasun eta zerb.	2,7	3,1	3,1

Iturria: INE eta Eurostat.

# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## Euskal enpresek dinamismo txikiagoa aurreikusten dute, baina baikor jarraitzen dute

### ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA.

#### EUSKADI

2026ko 3. HIRUHILEKOA

55,1




Laboral Kutxaren inkestaren arabera, euskal enpresen konfiantza leundu egin zen 2026ko hirugarren hiruhilekoari begira, baina hedapen eremu argi batean finkatuta jarraitzen du. Indize orokorra 58,0 puntutik 55,1era jaitsi zen; maila hori oraindik ere handia da ikuspegi historikoan, eta 50eko atalasetik gorakoa, aldeko eta kontrako igurikimenak bereizten baititu. Gainera, adierazlea pandemiaren ondorengo urte gehienetan ikusitako erregistroen gaintik dago

oraindik, EAEko enpresa ehunak bere negozioaren bilakaerari buruzko pertzepzio eraikitzaileari eusten diola islatuz. Badirudi zuzenketa gehiago erantzuten diola azken hiruhilekoetan ikusitako emaitza bereziki positiboen osteko normalizazioari, joera aldaketa bati baino; izan ere, enpresek jardueraren hazkundea aurreratzen jarraitzen dute, nazioarteko ziurgabetasunak markatutako testuinguru batean.


### FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




### JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




## ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




## PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



## ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK


Indizea



Konfiantzaren moderazioa nahiko orokorra izan zen, eta jarduerarekin lotura handiena zuten adierazleetan kontzentratu zen. Fakturaziolari, jarduerari, eskaerei eta inbertsioari buruzko igurikimenek atzera egin zuten aurreko hiruhilekoaren aldean, eta nolabaiteko bultzada galera izan zuten, zenbait hiruhilekotan bereziki aldekoak izan ondoren, nahiz eta hedapenarekin bateragarriak diren mailetan jarraitzen duten. Aitzitik, langileei buruzko itxaropenak izan ziren hobetu zen adierazle bakarra. Bestalde, prezioen aurreikuspenek zuzentzen jarraitu zuten urte hasierako maximoetatik, eta errentagarritasuna oreka atalasearen zertxobait azpitik jarri zen berriro.


## LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



## INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.




# ELGA-REN AURREIKUSPENAK

## ELGAK dezelerazio globala aurreikusten du tentsio energetikoek dirauten bitartean

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGaren ustez, Ekialde Hurbileko gaztazkari lotutako hornidura-disrupzioen iraupenak baldintzatuko du munduko ekonomiaren bilakaera hurrengo hiruhilekoetan. Jarduera globalak urte hasieran erresistentzia ahalmen nabarmena erakusten bazuen ere, energia hornidurako zailtasunak eta ziurgabetasunaren areagotzea pixkanaka eragiten ari dira kontsumoari, inbertsioari eta merkataritzari buruzko erabakietan. Ondorioz, munduko hazkundeak intentsitatea galduko du 2026an eta %2,8an kokatuko da, 2025ean erregistratutakoa baino sei hamarren gutxiago.

### ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2026	2027
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>	<b>3,1</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,1</b>
AEB	2,1	2,0	1,8	-	0,1
Eurogunea	1,4	0,8	1,2	-	-
Alemania	0,3	0,7	1,1	-0,1	-0,4
Frantzia	0,9	0,7	0,8	-0,1	-0,2
Italia	0,5	0,5	0,6	0,1	-
Espainia	2,8	2,2	1,7	0,1	-
Erresuma Batua	1,4	0,9	1,1	0,2	-0,2
Kanada	1,7	1,2	1,7	-	-
Japonia	1,1	0,6	0,8	0,3	-0,1
Txina	5,0	4,5	4,3	0,1	-
India	7,6	6,3	6,4	0,2	-
Brasil	2,3	1,6	2,1	0,1	-


## AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreikuspenak bereziki sentikorrek dira energia merkatuen bilakaerarekiko; izan ere, pixkanakako normalizazioak 2026an galdutako dinamismoaren zati bat berreskuratzea ahalbidetuko luke. Estatu Batuak %2,0 haziko dira 2026an eta %1,8 2027an. Eurogunea, berriz, %0,8 haziko da 2026an eta %1,2raino hobetuko da 2027an. Bestalde, 2026an inflazioa %3,7ra iritsiko da AEBetan eta %2,8ra euroaren eremuan, eta biek ala biek 2027an %2,1era eta %2,4ra jaitea lortuko dute, hurrenez hurren. Erakundeak azpimarratu duenez, egungo nahasmenduak luzatzeak ondorio kaltegarriagoak izango lituzke munduko ekoizpenean, enpleguan eta enpresa konfiantzan.

## TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>	<b>2,4</b>	<b>2,2</b>
Barneko azken kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,2	2,7	2,6	3,0
Familien kontsumoa	2,5	2,7	2,6	2,8	2,9	2,6	2,7
Administrazioaren kontsumoa	3,5	1,7	1,9	0,3	2,1	2,3	4,1
Kapital eraketa gordina	2,7	4,0	2,3	3,5	4,9	5,2	4,8
Barne eskaria	2,8	2,8	2,4	2,5	3,2	3,2	3,5
Esportazioak	0,1	0,4	2,0	0,8	-1,8	0,6	-1,4
Inportazioak	0,4	1,2	2,4	1,3	-0,5	1,8	0,5
Lehen arloa	4,3	-0,6	0,6	-0,4	-1,5	-1,2	-0,7
Industria eta energia	2,0	0,4	0,4	0,1	0,2	0,9	-0,3
Eraikuntza	2,0	3,7	1,7	3,1	5,1	4,9	2,5
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,7	2,8	2,9	2,8	2,9
Balio erantsi gordina	2,6	2,3	2,1	2,1	2,4	2,5	2,1
Ekoiizkinen g/ zerga garbiak	1,6	2,2	2,3	2,4	2,2	2,1	2,2
Enplegua	1,5	1,4	1,5	1,4	1,4	1,4	1,3

2024 datu aurrerapena da. 2025 eta 2026 hiruhileroko kontu ekonomikoak.

## EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Maiatza

2025								2026			
Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.	Apir.	Maia.
<b>99,3</b>	<b>103,0</b>	<b>102,7</b>	<b>103,1</b>	<b>103,8</b>	<b>107,6</b>	<b>104,2</b>	<b>109,3</b>	<b>104,1</b>	<b>100,6</b>	<b>99,7</b>	<b>99,2</b>

**X<50**  
Atzeraldia

**50<X<100**  
Hazkunde leuna

**X>100**  
Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroa 99,2koa izan zen maiatzean, eta hazkunde leuneko eremuan mantendu zen. Hileko bilakaerak kanpoko merkatuen portaerak baldintzatuta jarraitzen du, eta horrek industriaren bilakaera ahulera eramaten du. Testuinguru horretan, zerbitzuek lan merkatuaren datu onak bultzatutako jardura erritmoari eusten diote, eta eraikuntzak, berriz, aurrerapen positiboa izan du, nahiz eta aurreko hilabeteetan baino arinagoa izan. Horrela, jarduerak barne eskarian oinarritzen jarraitzen du, non kontsumoak aurrerapen sendoari eusten dion, prezioek gora egin duten arren, eta inbertsioak hazkunde handia duen.



# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

## EKAINAKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026			2026	2027
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>	<b>1,9</b>	<b>1,7</b>
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,6	1,8
Familien kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,6	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,6	1,8	2,1	2,7	1,8
Kapital eraketa gordina	3,8	2,5	2,2	3,3	2,5
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,4	2,3	2,8	2,0
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,6	-0,6	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-0,2	0,7	0,9	0,2	2,0
Industria	-0,2	0,7	0,9	0,2	2,0
Eraikuntza	1,6	0,2	0,3	1,1	1,5
Zerbitzuak	2,5	2,2	2,2	2,5	1,8
Balio erantsi gordina	2,0	1,8	1,8	1,9	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,7	1,9	1,2	1,8	1,5
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,2	0,9	1,1	0,9
Landunak (BJA)	1,0	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia tasa	6,4	6,6	6,3	6,5	6,2

## EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026	2027		2026	2027
Confebask	2,1	—	AIReF	1,9	1,7
Hispalink	2,0	1,8	<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>1,9</b>	<b>1,7</b>
Euskal Ganberak	2,0	—	CaixaBank	1,9	—
Ceprede	2,0	1,8	Laboral Kutxa	1,8	1,5
BBVA	1,9	2,4			

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>3,5</b>	<b>2,8</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,7</b>
Kontsumo pribatua	3,0	3,3	3,8	3,4	3,1	3,1	3,2
Kontsumo publikoa	2,9	2,4	2,4	2,5	2,3	2,5	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,6	5,8	4,5	4,9	7,7	6,2	5,6
- Aktibo finko materialak	3,3	6,0	4,4	5,1	8,2	6,2	5,3
- Eraikuntzan	4,0	5,2	2,6	3,4	7,3	7,5	6,0
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	7,4	8,0	8,3	9,8	3,7	3,8
- Landutako baliabide biologikoak	6,0	6,9	7,8	7,0	6,4	6,4	6,0
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,6	5,3	4,7	4,2	6,0	6,2	6,8
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	3,6	3,6	3,5	3,8	3,4	3,5
Esportazioak	3,2	3,6	3,4	4,1	3,1	3,7	0,8
Inportazioak	2,9	6,2	5,3	6,4	6,6	6,6	3,2

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026	2027		2026	2027
Equipo Económico (Ee)	2,4	2,1	CEEM-URJC	2,1	2,0
Oxford Economics	2,4	2,1	Universidad Loyola Andalucía	2,1	1,8
BBVA Research	2,4	2,4	Mapfre Economics	2,1	1,9
CaixaBank Research	2,4	2,0	Repsol	2,1	1,8
CEPREDE-UAM	2,4	2,0	Instituto Estudios Económicos	2,1	1,8
Santander	2,3	2,0	Metyis	2,0	1,8
EthiFinance Ratings	2,3	1,9	<b>Consenso (media)</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>
Cámara de Comercio de España	2,3	2,0	EB (maiatza 2026)	2,4	1,9
CEOE	2,3	1,9	Espainiako B. (martxoa 2026)	2,3	1,7
ICAE-UCM	2,3	2,2	Airef (apirila 2026)	2,2	—
Funcas	2,2	1,8	Gobernua (apirila 2026)	2,2	2,1
Intermoney	2,2	1,8	ELGA (azaroa 2025)	2,2	1,8
AFI	2,1	2,1	NDF (apirila 2026)	2,1	1,8

Iturria: Funcas.

# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
AEB	2,8	2,2	2,0	2,1	2,3	2,0	2,7
Txina	5,0	5,0	5,4	5,2	4,8	4,5	5,0
Japonia	-0,2	1,2	1,5	1,8	0,5	0,4	0,3
Kanada	2,0	1,9	3,1	2,0	1,7	0,7	0,0
Europar Batasuna	1,2	1,5	1,7	1,7	1,6	1,4	0,7
Eurogunea	1,0	1,4	1,7	1,6	1,4	1,2	0,3
Alemania	-0,5	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,3
Frantzia	1,5	0,8	0,8	0,8	0,8	1,1	0,9
Erresuma Batua	1,0	1,3	1,8	1,3	1,2	0,9	0,9
Italia	0,8	0,5	0,7	0,5	0,7	0,9	0,8
Herbehereak	1,1	1,8	2,4	1,6	1,6	1,6	1,3

Iturria: Eurostat eta ELGA.

## CONSENSUS FORECAST. 2026KO EKAINA

### Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2026	2027	2026	2027	2026	2027
AEB	2,1	2,1	3,6	2,5	4,4	4,4
Japonia	0,6	0,8	2,1	2,4	2,6	2,5
Kanada	0,8	1,9	2,7	2,1	6,6	6,2
Europar Batasuna	1,0	1,4	2,8	2,2	—	—
Eurogunea	0,6	1,2	2,9	2,3	6,3	6,3
Alemania	0,7	1,2	2,8	2,3	6,4	6,2
Frantzia	0,6	0,9	2,1	1,7	8,0	8,0
Erresuma Batua	0,9	1,0	3,3	2,9	5,3	5,3
Italia	0,6	0,7	2,9	2,0	5,5	5,6
Espania	2,2	1,9	3,3	2,3	10,1	9,8
Herbehereak	1,1	1,1	3,1	2,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.